



Genero-indarkeriaren kontrako zikloa

Aspaldian emakume erahilen amai-gabeko zenbaketaren gainohitze bat jasaten ari gara, eta ematen du azkenerako ohitu egin garela, ia egunero, gizonezko batek emakume bat hiltzera. Hau ez da onargarria, jasagarria eta ezta eramangarria ere gizarte demokratiko batetan. **Ez dira bakarrik zenbatekoak, gure biziak dira!**

Zenbaki bakoitzaren atzean emakume baten biziak dago. Urtarrilaren 1 bakoitzean emakumeen kontrako indarkeria dela eta erahildakoen kontagailua o-n jartzen da eta gertaera honek genero-indarkeriaren izatea ikusezin bihurtzen du.

Agoizko Udalak indarkeria sexistaren kontrako zikloa deiturikoan jarduera ezberdinak burutu ditu.

DOKUMENTALA: **Emakunderen «Volar»**

Dokumental honetan bederatzi emakume dira protagonista genero-indarkeriaren kontrako beraien lan ausart eta konprometituriko doku-

mentalaren emaitza den honetan. Eztabaidara bertako bi protagonista azaldu ziren, eta beraien alderdi pertsonaleko izate hunkigarriaren berri eman ziguten partaide eginaraziz.

TAILERRA:

Autodefentsa Feminista Emaginekin
Bere helburuen artean honakoak azpimarratzen ditugu: indarkeriaren erasoak, jatorria eta saiakeren identifikazioa bere alderdi eta ondorio guztietan. Gainera, mekanismoak eta jokaerak bilatzen dira eguneroko bizitzako indarkeria egoerei erantzun bat emateko eta hauek konpondu ahal izateko.

ANTZERKIA:

Martinaren parke fantastikoa
Unibertso txiki bat, non Martinak, haur-parkeak osatzen dituzten beste neskato eta mutiko guztiek bezala, errealitatea bere berezko amets egiten duen, non jokoaren eta irudimenaren bitartez, bera inguratzen duen mundua itxuratzen ahalegintzen den.

OROITZAPENEZKO EKITALDIA:

«Agoitzen ez ditugu eraso sexistak onartzen»

Azaroaren 25ean, igandean, Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatze Nazioarteko Egunaekin batera, indarkeria matxistak erahildako emakume, seme eta alaba guztien omenez egindako omenaldia gauzatu zen. Gainera, erasotuak, irainduak eta sistema matxista patriarkal honetatik bizirik atera diren emakume guztiei solidaritatea eta sororitatea erakustea da ekintza honen asmoa.

61 kanpai-hots entzun ziren erahildako emakume, seme edo alaben izenean. Eta jotzen zuten bitartean eta banan-banan bakoitzaren izena aipatzen zen artean, plazan mosaiko bat osatuz joan zen. Behin bukatu eta gero, Miguel Goñik eta Aritz Ugaldek «el sonido del silencio» jo zuten beraien guztien oroimenean.

400 pertsona inguruk hartu zuten parte Indarkeria Sexistaren kontrako ziklo honetako ekitaldietan.



Urte beteko harrera Agoitzen

Bada urtebete Nafarroako Gurutze Gorriak, Agoizko Udalak eta Nasuvisak elkarrekin Nafarroara heldu ziren Siriako lau familiari harrera egiteko lehen fasea egiteko programa sustatu zutela.

Azken hamabi hilabete hauetan zehar, bai Nasuvisak, bai Agoizko Udaleko gizarte-zerbitzuek herri honetan errefuxiatuak familien segimendua egin dute, Gurutze Gorriko gizarteratze programaren garapena ahalbidetzeko giza baliabideak eta materialak emanez.

Harrerako lehen fasean etxebizitza publikoan ostatu eman eta oinarrizko mantenua emateaz gain, gizarteratze programa honek gizarte-arreta eta aholkularitza, osasun-laguntza, hizkuntzen ikasketak, txikienei laguntza eskolan eta eskolaz kanpoko jardueretan parte-hartzea edo herrian bizitzeko trebetasun sozial garapenerako laguntza ere eskaintzen ditu.

Azken urte honetan Agoitzen, beraien egonaldia bitar-

Gizartetxea dagoeneko abian da

Berriki Gizartetxea barne hartuko duen eraikinaren obrak hasi dira. 72.000 eurotan, Construcciones Leachek, esleipendunak, kamineroen parkeko eraikin zaharreko berritze lana egingo du, Foru Gobernuak 2016an emandakoa bera. Obren bukaerarako gutxi gorabeherako epea datorren urteko bigarren hiru hilekoa aurreikusten da, eta behin berritzea bukatu-rik, lehiara aterako da eraikinaren kudeaketa.

Gizartetxearen ideia 2016ko urtarrilean sortu zen, Agoizko Udalak etxe honen doako lagapena onura



tean, pertsona errefuxiatu hauen aldetik erakutsiriko eskarmentua, eta hala azaldu dute, oso atsegina eta baikorra izaten ari da.

Agoiztar udalak, bere aldetik, familia hauei beraien bizitza errazago egiten dioten Agoizko pertsona guztiei bere eskerrik onena eman nahi die. Gainera, esperientzia honi gizarte integratzaile eta solidario modura adibide zehatz bat izatearen balioa ematen dio.



publikoko helburuetara zuzentzeko xedearekin eskatu zuenean. Eraikin honek bi gune sozial bereziak planteatzen ditu. Solairu bat gizarte-justiziaren eremuarekin erlazionaturik dauden jarduerak gauzatzeko dituzten eta modu altruistan lan egiten duten gizataldeei zuzenduta dago. Bestetik, eraikinaren beheko solairuan aurreikusten da jubiloteka kontziliazio zerbitzu bat, arnasa-gelak ere deituak. Behar garrantzitsu bat gure herrian mota honetako baliabiderik ez baitago. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzutik Zaharren Egoitzara pasatzen gara, dependentzia espazio hau arretarik gabe utziz.

Proiektu hau Cederna Garalur Elkartearen 2014-2020 aldirako Tokiko Garapen Parte-hartzailearen Estrategiaren (TGPE) bitartez %70eraino finantzatuta dago Nafarroako Mendialdeko zerbitzu publikoak hobetzeko, Nafarroako Landa garapenerako 2014-2020 Programako "LEADER" ekimenaren 19. neurriaren barnean kokatzen da, Nafarroako Gobernuak eta Europar Batasunak elkarrekin finantzatuta LGENF Landa-garapenerako Funtzen bitartez.



Atxikimendua SKOLAE programara

Agoizko Udalak, joan den azaroan egindako osoko bilkuran, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Sailak duela gutxi abian jarri duen Skolae programa laguntzeko agiria guztien adostasunaz onartu zuen.

Honela, agoiztar udalak behar-beharrezkotzat jotzen du hezkuntzaren oinarrietako bat hezkidetzaren izatea, eta Nafarroako ikastetxe guztietan hezkuntza afektibo sexuala errealitatea izatearen aldeko apustua egiten du. Gainera, Nafarroako Gobernuak premia-tzen du neurri eraginkorrak ezartzera eta hezkuntza afektibo sexualaren esparruan lan egiten jarraitzea Nafarroako ikastetxe guztietako ikasleriak aukera berberak izateko.

Skolae hezkidetzaren hasiera eta geroa izango da, indarkeria matxistaren prebentzioan eta heziketa afektibo sexuarekin. Berdintasunean eta genero indarkerian adituak diren profesional batzuk ere

adierazi dute Estatu guztiko hezkidetzaren programarik onena eta aurreratuen dela.

Udalan ulertezintzat eta arrazoirik gabekotzat jotzen dira programa honen inguruan ematen ari diren kritika ideologikoak.



Taupadak Haur-eskola, Hasi Gazte Sarietan finalista

Nafarroako Hasi Gazte gazte ekonomia gizarte sarien lehen sei finalisten artean, Taupadak Haur-eskola sartu da.

Eskaturiko 24en artean eta barne aukeraketa baten ondoren aukeratuak izan dira, finalistak, 3.000 euroko saria irabazteko aukera dutenak, epaimahaia-

ren aurrean hauen galderei erantzunak emateaz gain, beraien proposamenen alde ere egin zuten. Hemendik aurrera, finalista bakoitzak bere bideoa grabatu du, eta honek balioko dio, sarean egingo den bozketaren ondoren, proiektu irabazlea zein den argitzeko. Sari emate ekitaldia abenduaren 13an egingo da Iruñeko Zentral kafetegian.



Hasi Gazteak, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriarren Institutuak (NKGik), Laboral Kutxak, ANELEk eta CEINEk sortuak, pertsona gazteek garapen profesionalean eta lanekoan aukerak izateko hobekuntzan eta sormenean lanean jarraitzeko helburuarekin jaio dira. Era berean, bereizten dituen baloreak azpimarratzen dituzten Gizarte Ekonomiaren inguruko ekimenak sustatu behar ditu: lurraldean erroturik dauden enpresak, pertsona erdigune izatea onartzen dutenak, lana mantentzea edo sortzea helburu dutenak, ez bakarrik mozkin ekonomikoaren banaketa, kalitatezko, parte hartzeko, arduratsu eta jasangarria den lanak sortuta.

Lerro hauetatik zorte ona opa nahi diegu Taupadari lehiaketa azken zati honetan. Zorionak!

Agoizko Udala auzoekin

Berrogei eta hamar auzotar inguruk parte hartu zuen Agoizko Udalak pasa den azaroan antolatutako auzoetako bi bileretan. Aurten berriz ere garbitasuna, trafikoa edo gune komunaren hobekuntzak bezalako gaiak bertaratuko kontu komentatuak izan ziren.

Bilerak jendetsuagoak eta parte-hartzaileagoak ahalbidetzeko ideiarekin, Agoizko udalbatzak auzoak deitu zituen elkartzeko bilera bana, azken bi urteko formatua errepikatuz. Honela, haien auzoetan antzemandako eskaerak eta arazoak planteatu ahal izateaz gain, hiribilduko auzotarrek edozein zalantza konpondu ahal izan zuten eta lehen eskutik udal kudeaketa ezagutu.

Auzoetako bilera hauek, urtero egiten ari direnak azken bi legealdietan, Agoizko auzotarren jakin-minak, iradokizunak edo erreklamazioak ezagutzeko izan nahi dute. Honela, behin udalbatzak eta udal batzorde desberdinek aztertu dituztenean, udaleko arloetan garatutako lanetan sartzen ahal diren baloratan da, eta hala bada, urteko aurrekontuetara.

Harreman erronda hauen xedea parte-hartze zuzeneko bide bat gehiago izan nahi du hiribilduko auzotarrek haien kezkek, kexak edo iradokizunak Udalarari helarazi ahal izateko.

Elizalde Kontseilaria Agoitzen bildu zen Aurre Pirinioko ordezkari lokalekin

Agoizko Udala izan zen Landa Garapenerako, Ingurumeneko eta Tokiko Administrazioako kontseilaria den Isabel Elizalde eta Aurre Pirinioko etorkizuneko eskualdeko toki-erakundeetako ordezkarien arteko bilerarako lekua.

Xabi Lasak ere parte hartu zuten; Lursareako ordezkariak, lurraldearen eta jasangarritasunaren Agentzia eta Cederna-Garalurrekoa.

Landa garapenerako, ingurumeneko eta tokiko administrazioako jarduketaren printzipioak eta ildoak aurkeztu zituen Elizaldek. Alde horretatik, eta bileran aurkezturiko galderei erantzunez, kontseilariak «herri txikiagoei gune jendetsuenek eskaintzen dituzten zerbitzuen antzekoak eskaintzea

uzten dizkieten zeharkako politiken garrantzia» azpimarratu zuen.

Tokiko erreformaren inguruan, Toki-administrazioako zuzendari nagusiak, Xabi Lasak, jakinarazi zuen laster legearen inguruko eztabaida eta tramitazioa hasiko dela Nafarroako Parlamentuan.

Behin bilera bukatutik, Agoizko alkateak Tokiko Azpiegituren Programaren kontu egotziko diren udaleko zerbitzuen berrantolaketa eta birmoldaketaren zehaztasunak azaldu zituen. Azpimarratu zuen azalpeneko gune bat ere sortuko zela udaletxearen barruan El Irati S.A. enpresaren inguruko erakusketa barne hartuko duena.

Nafarroako Toki-administrazioako Erreformatik Nafarroan hamabi eskualde sortzea proposatzen duela gogorarazi, haien artean Aurre Pirinioko eskualdea, 5.539 biztalekin eta 12 herri: Agoitz, Artzibar, Elo, Ibargoiti, Izagaondoa, Lizoain, Longida, Orotz-Betelu, Untzitibar, Urraulgoiti, Urraulbeiti eta Urrotz.



Euskaraldia: 212 partaide

Agoizko 212 lagunek parte hartu dute **Euskaraldia-11 egun euskaraz** izeneko ekimenean. Gure egunerokoan euskararen erabilera bultzatzeko eta hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa kolektiboa izan da, azaroaren 23tik abenduaren 3a bitartean gauzatu dena. Bi parte hartzeko modu egon dira lehenengo

aldiz martxan jarri den inizatibian, bakoitzak hartu nahi zuen konpromisoari egokitutakoak: Ahobizi eta Belarriprest. Agoitzen 122 ahobizi izan dira eta 90 belarriprest. Nabarmenezkoa da partaide guztien artean emakumeak izan direla gehiengoa: %62.

Udalbatza txikia aukeratua izan da

Alkatetzarako hautagai aurkeztu ziren 8 neska mutilen artean, 12 botorekin, Elena Vicente Martínez izan zen aukeraturik atera zena eta alkate lana egingo du datorren urte guztian Ilazki Elizari Minaren ordezkaria harturik. Zinegotzi eta ordezkari txikiak, agoiztar udal-

batza guztia osatu artekoak, zozketa baten bitartez aukeratu ziren. Aurtengo berritasuna, eta estreinatua berria den udal txikiaren lehen zereginetako bat, aukeraketa bat izan da, hau ere zozketaren bitartez, Erregeen kabalगतan

figurante modura parte hartuko duten neskatila eta mutikoena.

Eta abendura heltzean, lan gehiago udalbatza txiki berriarentzat. Hurrengo Eguberrietan Olentzerori eta Errege Magoei harrearen egitearen kargua izango da.



Hauek dira Udal txiki berria osatzen dutenak: **Alkatea:** Elena Vicente Martínez. **Zinegotziak:** Claudia Aldave Martínez, Argiñe Babiano Arroyo, Markel Barrio Escudero, Arkaitz Cortez Huarte, Eder Goldaracena Eslava, Saioa Meleiro Herrera, Aroa Moreno Iturralde, Leire Ripodas Egea, Mateo Ruiz Baleani, Laila Sigame. **Ordezkoak:** Leo Bodini Iturri, Iker Itoiz Ripodas, Roberta Mihai.

Kargu publikoen topaketa elizak inmatrikulaturiko ondasunen berreskuraketarako

Berreskuratuz, eliza katolikoak inmatrikulaturiko ondasunen berreskuraketarako Estatu mailakoa den Koordinadorak, joan den azaroaren 11n, Zaragozan, udalerrien eta kargu publikoen arteko topaketa bat ospatu zuen

ondasun hauen berreskuraketarako. Topaketara 50 pertsonatik gora hurbildu zen, Zaragoza, Sevilla, Kordoba edo Balear Uharteetako zinegotzi eta alkateak, besteak beste, herrienak diren ondasunak berreskuratzeke lan neketsuan izan duten eskarmentuaren berri emateko. Nafarroako Plataforma Agoitz, Tafalla eta Etxagueko alkate eta zinegotziak ordezkaturik egon zen, eta 2007an talde nafarra sortu zenetik egindako lana kontatu zuten.

Era berean, elkarteratzeak plataformak elizak bere izenean dituen ondasunak berreskuratzeke bidea hasi nahi duen toki-erakundeei zuzenduta egindako gida aurkezteko balio izan zuen, bertan urratsak nola eman eta bidean ez galtzeko jarraibideak erakusten dira.



Hegaztien eta Hiritar Zientziaren jardunaldia

Joan den azaroaren bukaera aldera, eta bi bileratan zehar, Agoitzen Hiritar Zientzia eta Ingurumen-sentsibilizazio Jardunaldi bat ospatu zen. Gorosti Natur Zientzi Elkarteak eta Agoizko Udalak antolatutako, jarduerak hau %100ean Nafarroako Gobernuak diruz lagunduta dago.

Aurelio León gelan egin zen lehenengo bilera, eta Agoitz eta inguruetan aurki ditzakegun hegaztien azalpen labor bat izan zen. Gai-

nera, «eBird» Plataformako web eta app-an praktika bat ere egin zen. Telefono mugikorrerako plataforma bat da, non erabiltzaile den pertsona bakoitzak leku zehatz batean egindako behaketa idatz dezakeen, eta behin adituek be-rrikusita, baieztatu egiten da eta mundu mailan dagoen datu-base batera pasatzen da. Modu honetan, planetako toki ezberdinetan dauden espezieen zenbaketan lagundu dezakete, horrela «Hiritar Zientzia» eginez.

Bigarren bileran zehar, eta Guendulaingo bidean barrena paseo bat eman bitartean, telefono mugikorreko aplikazioa erabili zen behaturiko espezieen zerrenda bat sortzeko: 24 espezie ezberdinetako 66 hegazti zenbatu ziren, landetan hegaztiak behatzeko urteko garairik onena izan ez arren. Beraien kantua entzunda ere ezagutu ziren espezie batzuk, esaterako: txantxangorria, kaskabeltza, amilotxa, txinboa eta abar.

Gainera, ekosistema batetik bestera aldatuz doazen paisaiaren osagai ezberdinek duten garrantzia egiaztatu zen: ibaiertzeko basoak, ibaiak, alor landuak, zuhaitzekin egindako hesiak, sasitza baxuak, elorriak eta abar.

Agoitzen bizi diren hegaztiak eza-gutzeko oso jardunaldi interesgarria. Lerro hauetatik eskerrak eman nahi dizkiegu etorritako pertsona guztiei, eta Juan eta Gonzalo Dean-i, bilera hauen gidari izan ziren ornitologoei.



Irati RSU Mankomunitatearen egutegiak saria du

Urtero bezala egun hauetan Irati RSU Mankomunitateak datorren 2019ko egutegi bat argitaratu eta gutunontziz gutunontzi banatu du. Lehiaketara aurkezturiko argazki batzuk jartzeaz gain, hile bakoitzak mankomunitatearen herrietako auzokideentzat oso balagarria izan daitezkeen aholku batzuk eta informazioa jasotzen ditu. Modu horretan bilketa-gunearen egutegia eta ordutegia zehaztasunez jakin dezakegu, edukiontzi bakoitzean zer hondakin utzi, konposta eta materia organikoa egiteko tratamendua...

Baina 2019an, eta herri-mailako kontsumoa dinamizatze aldera, urtean zehar bakoitzak 150€ko balioa duten bi erosketa txartel zozkatuko dira zergadunen artean inguruko edozein dendatan gastatzeko. Ezinbestekoa izango da egutegia ematea saria jasotzeko.



Santa Zeziliaren omenez

Santa Zezilia eguna zela eta, aurriko azaroaren 22an Agoizko Musika Eskolako fanfarrea eta banda bere zaindariaren omenez herriko kaleetan zehar ibili ziren.

Udal Eskolako neska eta mutilen talde handi batek kalejira alai batean hainbat musika pieza interpretatu zuen. Ekimen dotore hau urtez urte errepikatzen da duen

harrera ona dela eta. Ez da utzi behar inolako aukerarik pasatzen musikarekin ospatzeko eta Santa Zezilia da hauetako bat.



Kulturaren balantzea

Genero-indarkeriaren kontrako zikloan kokaturiko ekintzez gain, azaroko programazio kulturalak bere betiko bidetik jarraitu du.

Musika modu ezberdinetan ikusi eta entzun ahal izan da. Nazioarteko XXIV. Ziklo Koralararekin hasi zen hila-betea, eta herriko kultura-etxeak Suediako S.T. Jacobs Vokalensemble-ko koro mistoa ekarri zuen, noizean behin nazioarteko sari garrantzitsuekin saritua bera.

Mugarik Gabeko Txuntxuneroak Agoitzen ospatu zuen bere ohiko elkarretaratzea, beti bezala denboraldia bukatu aurretik beraien azken irteera egiten duteneko. Aurten betetzen zuten beraien XII. urtea herrian. Hainbat lekutatik hurbildutako 70 txistulari baino gehiagok Merkatu Plazan hamaiketako bat eginez eman zioten hasiera egunari, geroago, goizeko lehen orduetatik hasita kaleak eta auzoak girotzeko.

Igandeetako bi arratsaldetan Bilaketak programaturiko kafe-kontzertuak gozatu ahal izan genituen. Biolontxelo, perkusio, biolin, klarinete eta kantuek doinuak bete zuten gainezka zegoen José Hierro aretoa.



Eta kolore biziz eta irudi txikiz apaindu zen Kultura-etxearekin areto handia Daniel Tamayoren erakusketa ikusgarria jasotzeko, non bere irudizko mundura «Peripeteia»ra hurbildu gintuen. Formatu handiko zazpi margolan, eta beste hainbeste akuarela pertsonaiak, paisaiak, objektuak eta era askotako arkitekturak osatu zuten bilbotar autore honen erakusketa.

Bere zazpigarren edizioan, Sarean herriko taldeak, apymakoekin eta udalarekin batera, Bigarren eskuloko Merkatua, birziklatze, truke eta eskulangintza antolatu zuen. Agoitzar, 24 postuk eta bi solidariok (Eki-Sahara eta Jerejef elkarteak) bete zuten Toki Eder frontoia. Sarean-en ekimen hau, gero eta harrera gehiago duena, beste jarduerak solidario batzuekin osatzen da urte guztian zehar: Eguberrietako kanpainarekin, San Isidroko merkatuarekin, eskolako materialaren bilketa kanpainarekin eta Gurutze Gorriarekin edo Elikagaien Bankuarekin egiten diren beste elkarlan batzuekin.

Eta bukatzeko, txikienek ere Sergio de Andrés ipuin kontalariarekin beren lekutxoak izan zuten bere «Cuentos gratinados»ekin hurbildu baitzen liburutegira.